

GAIA: 2024-2025 DENBORALDIRAKO TALDE FEDERATUEN IZENA EMATEKO EPEA
NORENTZAT: GIPUZKOAKO SASKIBALOI ELKARTE GUZTIAK

Atsegin handiz jakinarazten dizuegu 2024-2025 denboraldirako GSFk antolatzen dituen lehiaketetan parte hartzeko izen-emate epea zabalik dagoela, eta ondoren zehazten den egunean bukatuko dela:

- ▶ **Senior, junior eta kadete errendimendu taldeak** dituzten klubek, beraien taldeak <https://intra-feb.fe.es/oficinawebclub> webguneko "Oficina web de Clubes" plataformatik egin behar dute. Bertan erabiltzailea eta pasahitza sartu beharko dute. Inskripzioa egin ahal izateko, klubaren fitxa sartu beharko da plataforma berdinean. "Oficina Web"-eko eskuliburua GSF-ko webgunean, gisaski.eus, aurkitu dezakete.
Junior eta Kadete URREAko eta ZILARRAko Errendimendu lehiaketetan, talde guztiek eman beharko dute izena Errendimendu mailan. Ondoren, federazio honek banatuko ditu taldeak URREAko eta ZILARRAko multzoetan, kirol-eskubideen arabera dagokion moduan.

Klub Fitxaren datuak (derrigorrezkoak), GSFaren web orrian sartu behar dira, Klubak sarbidean - Klubaren datuak: Klubaren, lehendakariaren eta idazkariaren datuak bete edota berrikusi

Errendimenduko kadete taldeek Diputazioak taldeen inskripzio epea zabaltzen duenean, izenematea Foru Aldundiak duen sistema informatikoaren bitartez egin beharko da ere, 2024ko irailaren 9ra arte (lizentziak 2024ko irailaren 13ra arte).

Partaidetzako kadete eta infantilen izen emateak, helburu honetarako Foru Aldundiak duen sistema informatikoaren bitartez egingo dira.

- ▶ Lehiaketak: Probintziako gizonezko seniorren 1. eta 2. maila, errendimendu juniorrak, errendimendu kadeteak: **2023ko uztailak 7 (23:59), igandea**
- ▶ Lehiaketak: Gizonezko seniorrak 3. maila, emakumezkoen seniorrak, parte hartzeko juniorrak: **2024ko irailak 15.**
- ▶ Parte hartzeko kadeteak eta infantilak: **2024ko irailak 15, Foru Aldundian, Internetez.**
- ▶ Lehiaketak: Errendimenduzko eta aparte hartzeko miniak eta benjaminak: **2024ko irailak 30, Foru Aldundian, Internetez.**

PLAZA HUTSAK: Honen bidez jakinarazten dizuegu lehen mailan edo errendimenduan jokatu nahi duten probintziako bigarren mailetakoko edota partaidetzako klubek **IntraFEB bidez, taldea inskribatu beharko dute eskubideak dituzten kategorian eta eskubideak eskatu goragoko kategorian, azken horren inskripzio-kuota ordainuz, uztailaren 7aren 23:59ak baino lehen.** Eskaera egin eta izen-ematea gauzatu duten taldeek izango dute aukera lehen mailetan hutsik geratzen diren plazak betetzeko. (ikusi bete gabeko lekuei buruzkoa, zirkular honen amaieran.)

Epez kanpo iristen den izen-ematerik ez da onartuko, ezta behar bezala beteta ez dagoenik ere.

IGOERARI UKO EGITEA

Denboraldi amaieran mailaz igotzeko aukera ematen dion lehiaketa batean sailkapena lortu duen edo horretarako sailkatu gabe mailaz igo den talde orok, dagokion lehiaketan plaza libreak sortu direlako, 2024ko ekainaren 30a baino lehen egin beharko dute uko igoerari, epe barruan egindakotzat har dadin (Oinarriak 2.5).

KIROL ESKUBIDEAK LAGATZEA

Lehiaketetan parte hartzeko kirol-eskubideak lagatzeko eta onartzeko erabakiak GSFari jakinarazi beharko zaizkio, lehiaketetarako ezarritako inskripzio-epearen barruan.

GSFn INSKRIPZIO-KUOTA

Aurrerago adierazten diren taldeen inskripzio-kuotak Batzar Orokorrak aldatu ahal izango ditu. Kasu horretan, beharrezko doikuntzak egingo dira, bai klubren aldekoak bai aurkakoak badira.

Taldeen inskripzio-kuotak Kutxabaneko 2095 5009 73 1061453543 kontu korrontean ordaindu beharko dira, edozein sukurtsaletan, dirua sartu duen kluba zein den adierazi beharko da, eta **taldeak inskribatzeko unean maribel@gisaski.eus helbidera nahitaez bidali beharko den kopia bat eskatuko da.**

2024ko Ekainaren 30a baino lehenago Federazioarekin bere zorrak ordaindu gabe dituzten klubei ez zaizkie inskripzioak onartuko

IZENA EMATEKO KUOTAREN ZENBATEKOA

KATEGORIA	GSFren KUOTA
Seniorrak	400€
Errendimenduko juniorrak eta kadeteak eta Euskadiko Liga	240€
Parte-hartzeko juniorrak eta kadeteak	150€
Errendimenduko Infantilak	175€
Parte-hartzeko Infantilak	125€
Mini Errendimendua	60€

PLAZA HUTSAK (Lehiaketaren oinarriak, 2.6 eta 2.4.2 puntuak)

Lehiaketa itxietan postu hutsak gertatzen direnean, hala eskatzen duten taldeek beteko dituzte postu horiek, eta lehiaketa horietarako ezarritako epeetan inskribatuko dira. Lehentasuna izango dute:

1. Beheragoko hurrengo lehiaketan parte hartu duten eta igo ez diren taldeak, sailkapenaren arabera.
2. Jaitsitako taldeak.

Izena emateko epea amaitu ondoren, plaza hutsak badaude, horiek beteko dira 2024ko uztailaren 9tik 23:59ra bitartean egiten diren inskripzioekin, 1. eta 2. ataletan adierazitako irizpideari jarraituz. Ekipo berrien kasuan, interes geografikoa edo orokorra hartuko da kontuan, eta, azkenik, plaza noiz eskatu den.

GSFren Zuzendaritza Batzordeari baimena ematen zaio aurreikusitako talde erregistratuen kopuruarekin bat ez datozen lehiaketak erregularizatzeko, indarrean dagoen denboraldian lehiaketa bakoitzeko talde-kopurua egokitzeko.

2.4.2 Klub eta kategoria bakoitzeko talde-kopurua

Lurraldeko lehiaketa guztietan, klub bakoitzeko talde-kopurua irekia izango da, honako kasu hauetan



izan ezik:

- ▶ Senior gizonetzkoen lehen maila eta senior emakumezkoen lehen maila gehienez talde bat klub bakoitzeko.
- ▶ Errendimendu Urrea eta Zilarrako lehiaketak: Klub bakoitzeko gehienez errendimenduko 2 talde, denboraldiaren hasieran lehiaketa bakoitzean gehienezkoa 1 izanik, hau da, 1 URREAn eta beste bat ZILARRAn. Klub bakoitzeko talde gehienezkoa Euskal Liga, Errendimendua URREA eta Errendimendua ZILARRAren artean 3koa izango da, plaza hutsak betetzen ez diren kasuan izan ezik, atal hau betetzen den ala ez berrikus daitekeela.

Denboraldi amaieran klub batek talde bat baino gehiago baditu Urrezko edo Zilarrezko lehiaketa horietako batean, klub horretako bigarren taldeari hurrengo txapelketara jaitziko zaio. Kasu horretan, aurreko denboraldian sailkatutako hurrengo taldeari egokitu zaio plaza, sailkapen-ordenaren arabera, betiere errendimendu-lehiaketa horretan sailkatutako talderik ez badu.

Donostian, 2024ko ekainaren 24ean.